

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA

Kirola, kultura eta gizarte ekintzaren arloko dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarriak, 2019. urtea

Erriberabeitiko Udalak, 2019ko azaroaren 18an egindako ohiko bilkuran, onetsi egin zituen kirola, kultura eta gizarte ekintzaren arloko dirulaguntzen deialdia eta oinarriak, 2019. urterako.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, argitaratu egiten dira haiek, guztiek ezagutu ditzaten.

Kirola, kultura eta gizarte ekintzaren arloko dirulaguntzak emateko oinarriak, 2019. urtea

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea hau da: Erriberabeitiko udalerrian kirola, kultura eta gizartearekin lotutako ekimenak, programak nahiz jarduerak garatzeko, 2019an Erriberabeitiko Udalak ematen dirulaguntzak arautzea. Herritar guztien bizi maila hobetzen lagundu behar dute ekimen, programa eta jarduera horiek, eta Udalak haren jarduketa eremuetan aurreikusitako helburuak lortzen.

2. Diruz lagundu daitezkeen zerbitzu eta kontzeptuak

Dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte irabazi asmorik gabeko elkarte edo klubek kultura, kirola eta gizarte ekintzaren arloan eta Erriberabeitiko udalerrian 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra bitartean egindako edo sustatutako dinamizazio proiektu nahiz jardueretatik sortutako gastuak, baldin eta honako gai hauekin lotuta badaude:

1. Sustapen soziokomunitarioko esku hartzeak:

- Gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna.
- Integrazioa edota kulturartekotasuna.
- Hirugarren adina.
- Haur edota gazteei zuzendutako jarduera hezigarriak, aisia eta astialdia.
- Osasunerako prebentzioa.
- Etengabeko prestakuntza eta boluntariotzaren sustapena.
- Sentsibilizazioa: ingurumenari lotutakoa, etab.

2. Sustapen kulturalako esku hartzeak:

- Prestakuntza eta sorkuntza artistikoa.
- Herritarrek parte hartzeko kultura jarduerak.
- Zabalkunde kulturala: hitzaldiak, monografikoak, erakusketak, etab.
- Bisitaldi kulturalak (sarrerak baino ez; lekualdaketak ez).
- Diruz lagundu daitezkeen jarduera edo programarako materiala erostea.

3. Kirola sustatzeko esku hartzeak:

- Kirol jarduerak.
- Kirol ekitaldien antolaketa eta garapena.
- Oinarriko kirolaren sustapena.
- Erriberabeitiko udalerrria beste udalerrri batzuetako torneo edo ligatan ordezkatzeari (kopuru finko bat emango da, udalerrian erroldatutako kide bakoitzeko): 20 euro, erroldatuek.
- Kirola, kultura eta gizartearen arloan diharduten eta legez eratuta dauden elkarte eta taldeen material edo ekipamendua erostea, diruz lagundu daitekeen jarduerari edo programarako. Gehienez 4 euro emango dira elkarteko kide bakoitzeko.
- Begiraleen gastuak.
- Instalazioak alokatzeagatik gastuak.
- Begiraleen lekualdaketak.

Erriberabeitin egiten diren sustapen soziokulturaleko edo kirol sustapeneko esku hartzeak 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra bitartean eginak izan behar dute.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

- Herriko jaietako egitarauaren ondorioz edo Udalak eta elkarte eskatzaileak sinatutako hitzarmenen ondorioz diruz lagundutako jarduerak.
- Norberak erabiltzeko materialen, txangoen, bazkarien, lunchen, dieten eta abarren gastuak.
- Elkartearen barne funtzionamendutik eta kudeaketatik sortutako gastu materialak, eta elkartearen jardueren berri emateko publizitatearen gastuak. Elkartearen web orriaren mantentze lanekin lotutako gastuak.
- Udalak eskaintzen dituenekin batera egindako proiektuak, udal esku hartzearen osagarri ez badira.

3. Erakunde onuradunak

3.1. Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte Euskadiko Elkartearen ekainaren 22ko 7/2007 Legearen arabera erregistratuta dauden eta programak edo jarduerak Erriberabeitiko udalerrian egiten dituzten irabazi asmorik gabeko elkarte edo kirol klubek.

Pertsona onuradunek bete beharreko baldintzak:

1. Haien jardun esparruak eragina izatea Erriberabeitiko udalerrian.
2. Elkartearen egoitza Erriberabeitiko udalerrian egotea.

3.2. Dirulaguntzen deialdi publikoan parte hartzeko, erakunde eskatzaileek egunean egon beharko dute beren zerga eginbeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Erriberabeitiko Udalarekikoak betetzen. Baldintza hori eskaera aurkezteko unean bete beharko da, eta dirulaguntzen prozesu osoan mantendu (dirulaguntza eman izana jakinaraztea, betebeharra aitortzea eta dirulaguntza ordaintzea).

3.3. Ezingo dira izan dirulaguntzen onuradun beren antolakundean eta jardueren programazioan emakumeen edo gizonen berdintasunezko presentzia edo partaidetza eragozten duten erakundeak.

3.4. Dirulaguntzarik ezingo dute jaso azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 13.2. eta 13.3 artikuluetan jasotzen dituen egoeraren batean dauden pertsonak.

4. Aurrekontu kreditua

Deialdi honen babespean ematen diren dirulaguntzak aurrekontuko baliabide erabilgarrietara moldatuko dira eta honako aurrekontu esleipen honi egotziko zaizkie:

– Aisialdi eta kultura jarduerak: 2.000,00 euro, Erriberabeitiko Udalaren 2019. urterako 2019_334_481010 aurrekontu aplikazioaren kontura.

– Kirol jarduerak: 4.500,00 euro, Erriberabeitiko Udalaren 2019. urterako 2019_334_481010 aurrekontu aplikazioaren kontura.

5. Izapidetzea

5.1. Aurkezteko epea:

Eskaerak aurkezteko epea 15 egunekoa izango da, iragarkia BOTHAn argitaratu osteko egunetik hasita.

5.2. Dokumentazioa:

Deialdiaren inguruko dokumentazio guztia eskuragarri egongo da udalaren bulegoetan, jendearentzako arreta ordutegian, eta webgune honetan: www.erriberabeitia.eus.

5.3. Eskaerak eta izapidetzea:

5.3.1. Eskaerak udal bulegoetan aurkeztu beharko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, arabera ezarrita dauden gainerako eretan, 5.1 oinarrian adierazitako epean. Agiri hauek erantsiko dira:

– Eskaerak bat etorri behar du oinarri hauen I. eranskinean dagoen ereduarekin (udal bulegoetan eta www.erriberabeitia.eus web orrian eskura daiteke), eta lehendakariaren edo dagokion ordezkariaren sinadura eraman behar du.

– Ordezkariaren egiaztatzea eta NANaren kopia.

– Estatutuen fotokopia, eta elkarte legez eraturak eta elkarte eta erakundeen erregistroan izena emanda dagoela frogatzen duten agiriak (soilik dirulaguntzak lehen aldiz eskatzen dituzten elkarteentzat, edo 2019an estatuak aldatu dituztenentzat).

– Egin diren jardueri buruzko justifikazio memoria sinplea. Honako alderdi hauek azaldu behar dira: Jarduera, partaide kopurua, kopuru horretatik zenbat diren udalerrikoak, adinak, jardueraren data eta jardueraren gastu eta sarreraren balantzea.

– Gastuen justifikazioa, baldin eta ordainduta badaude, deialdi honen 10. oinarrian ezarritakoaren arabera.

– Diruz lagundu daitekeen ekitaldiko gastuen eta sarreraren zerrenda zehaztua, jarduerak xehatuta (III. eranskina).

– Erakundeak helburu bererako jaso edo eskatu dituen bestelako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideen zerrenda zehatua. Zehaztekoa eta jatorria adieraziko da (II. eranskina).

5.3.2. Udalak bidezkatat jotzen dituen azalpenak eta agiriak eskatu ahal izango ditu aurkeztu den eskabidea baloratzeko.

5.3.3. Eskaerak ez baditu betetzen deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak, organo eskudunak erakunde interesdunei jakinaraziko die gehienez 10 egun naturaleko epea dutela (epea ezingo da luzatu) akatsa zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko. Hori egin ezean, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da, Udalak dagokion ebazpena eman ondoren. Ebazpen hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritako eran eman beharko da.

6. Balioespen irizpideak

6.1. Erriberabeitiko Udalak ondoren zehazten diren irizpideak hartuko ditu kontuan, erakunde eskatzaileei dirulaguntzak emateko edo ukatzeko:

1) Aurkeztutako programak: Gehienez 5 puntu:

Egindako jarduera kopurua: 0,5 puntu jarduera bakoitzeko.

2) Bazkide kopurua (1 puntu erroldatutako 5 bazkideko, eta 1 puntu erroldatu gabeko 15 bazkideko): gehienez 5 puntu.

3) Programen jarraitutasuna (0,5 puntu urteko): puntu bat elkarteak edo entitateak egin duen urte bakoitzeko: 5 puntu, gehienez ere.

4) Elkartearen jarduerak udalerrian duten eragina (programa edo jarduerak gutxi gorabehera zenbat pertsonari egiten dion mesede): gehienez 10 puntu.

5) Programak udalerrriaren dinamizazioari egiten dion ekarpena: 5 puntu.

6) Programaren originaltasuna, edo udalerrian horren antzeko programa edo jarduerarik ez egotea: gehienez, 5 puntu.

7) Jarduera edo programak euskararekiko duen jarrera (bultzatzen duen ala ez). Gehienez ere: 3 puntu.

8) Jardueraren garapenean genero berdintasunaren ikuspegia sartzea. Gehienez ere: 2 puntu.

6.2. Balorazioan lortutako puntuei honako ehuneko hauek esleituko zaizkie:

LORTUTAKO PUNTU KOPURUA	EHUNEKOA
1 puntutik 10 puntura	% 1etik % 20ra
11 puntutik 20 puntura	% 21etik % 40ra
21 puntutik 30 puntura	% 41etik % 60ra
31 puntutik 40 puntura	% 61etik % 80ra

6.3 Emandako dirulaguntza, erakunde eskatzaile bakoitzeko, ezingo da izan aurrekontu partidaren ehuneko 80tik gorakoa edo 1.500 eurotik gorakoa kirol elkarteen kasuan, eta 2.000 eurotik gorakoa kultura elkarteen kasuan, diruz laguntzeko eskatzen diren programa edo jardueren kopurua gorabehera.

6.4. Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko zein pribatuk xede bererako eman ditzakeenekin. Nolanahi ere, dirulaguntzen eta beste baliabide batzuen bidez lortutako finantzaketaren guztizkoa ezingo da izan diruz lagundutako programa edo jardueraren guztizko kostua baino handiagoa.

6.5. Zenbatekoak zehaztuko dira artikulua honetan xedatzen diren diruz laguntzeko moduko jardueretarako ezarritako mugen arabera, betiere kontuan izanik ez dela diruz lagunduko kasu bakoitzean aurkeztutako gastuen ehuneko 80 baino gehiago, edo 1.500 eurotik gora kirol elkarteen kasuan, eta 2.000 eurotik gora kultura elkarteen kasuan, eta inoiz ezingo dela dirulaguntza gisa eman elkarteak bere jarduera guztietarako duen urteko defizita baino gehiago.

6.6. Kasu guztietan, baldin eskaeren kopurua eta eskatutako dirulaguntzen zenbatekoa direla-eta dirulaguntzen gehieneko ehunekoak txikitu behar badira aurrekontuan ezarritako partidara doitzeko, txikitzea proportzioan ezarriko zaie jarduera guztiei.

6.7. Nahiz eskaerarik aurkeztu ez delako, nahiz bete beharreko baldintzak betetzen ez direlako, jarduera lerroetakoren batean zuzkidura agortzen ez bada, soberan geratu den zenbatekoa erakunde onuradunei esleitutako zenbatekoari gehitu ahalko zaio, oinarri hauetako 7. artikuluan xedatzen den instrukzio organoak egiten duen proposamenaren arabera.

7. Emateko prozedura

Norgehiagoka prozeduran, aurkeztutako eskaerak alderatu egiten dira dirulaguntzak emateko, eta haien arteko lehentasuna zehazten da aurreko artikuluan adierazitako irizpideen arabera. Baloraziorik handiena lortu duten eskaerei esleitzen zaizkie dirulaguntzak, eta haien zenbatekoa ezin da izan deialdiaren oinarri espezifikoean jasotako aurrekontu hornidurarena baino handiagoa.

8. Instrukzioa eta ebazpena

8.1 Instrukzio organoa udaleko teknikariek osatuko dute. Datuak zehaztu, jakin eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen ekintza guztiak egingo ditu ofizioz. Eskaerak izapidetzeko onartu ondoren, kasu bakoitzean beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla egiaztatuta, zerbitzu teknikoak balioespen txostena eta ebazpen proposamena emango ditu, deialdiaren 6. oinarrian ezarritako irizpide teknikoei jarraituz.

8.2. Batzorde tekniko bat eratuko da, arloko zinegotzi ordezkariak, dagokion arloko zerbitzuko teknikariek eta idazkari kontuhartzaileak osatua. Batzorde horrek bana-banako ebazpen proposamen egingo dio alkatetzari, ebazpena har dezan.

8.3. Deialdia onesteko eta ebazteko organo eskuduna alkatetza da, baina eskuordetza eman diezaioke zinegotzi ordezkariari.

9. Ebazteko eta jakinarazteko epea

9.1. Prozedura hiru hilabeteko epean ebatziko da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igarota ebazpen espresik hartu ez baldin bada, ezetsizat eman beharko da dirulaguntza eskaera.

9.2. Erriberabeitiko Udalak erakunde eskatzaileei jakinaraziko die eskatutako dirulaguntza eman edo ukatu dien; 15 egun naturaleko epean jakinaraziko die, deialdiari buruzko ebazpena ematen denetik aurrera kontatuta. Behin dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazitakoan, onuradunak, 10 egun naturaleko epean, ez badio berariaz uko egiten, onartutzat joko da.

9.3. Emateko edo ukatzeko erabakia amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka, edo oinarri hauen aurka, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio erabakia hartu duen organo berari hilabeteko epean, hura argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; edota, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietarako Gasteizko epaitegian, bi hilabeteko epean, hura argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

9.4. Dirulaguntza emateko erabakian hauek zehaztuko dira:

- a) Dirulaguntzaren xedea, eta hura ematen zaion eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda.
- b) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko epeak.
- c) Dirulaguntzaren izaera eta zer baldintzarekin ematen den.
- d) Gainerako eskaeren ezespena.

9.5. Behin-behineko ebazpen proposamenean ageri den dirulaguntza zenbatekoa txikiagoa baldin bada aurkeztutako eskabidean ageri dena baino, erakunde hartzaileak bere eskabidea birformulatzeko eskatu ahal izango du, konpromisoak eta eman daitekeen dirulaguntzaren baldintzak egokitzeko. Instrukzio organoak eskaerari oniritzia eman eta gero, hura, jarduketa guztiekin batera, organo eskudunari igorriko zaio, ebazpena har dezan.

10. Dirulaguntza ordaintzea eta gastuak justifikatzea

Dirulaguntzen hartzaileek frogatu beharko dute jasotzen dituzten funtsak dirulaguntzaren emakidaren oinarria izan zen helbururako erabiltzen dituztela, bat etorri dirulaguntzen udal ordenantza orokorraren 19. artikuluan ezarritakoarekin eta oinarri hauetan ezarritakoarekin.

10.1. Emakida egunean gastuak frogatzeko baldintza guztiak betetzen badira ordainduko da dirulaguntza, ordainaldi bakar batean.

Haiek frogatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Gauzatutako gastuen zerrenda, zenbaki hurrenkerazkoa, bertan zehaztuz hartzekoduna, zenbatekoa, faktura eman zen data eta ordainketa, deialdi honetako III. eranskinaren arabera.

b) Eranskin horrekin batera fakturak aurkeztuko dira, bai eta ordainketa egiaztagiria edo ordainketa egin izana frogatzen duten bankuko laburpenak ere. Eskaeraren egunean entregatu ez diren ordainketa egiaztagiria 2020ko urtarrilaren 31ra arte, ostirala, aurkeztu ahal izango dira.

Gastuak ez dira ordainduko baldin eta fakturretan datu hauek ageri ez badira: fakturaren zenbakia; faktura egin zeneko data; izen-abizenak edo sozietatearen izen osoa, hala faktura eman behar duenarena nola eragiketen hartzailearena; zerga administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia; helbidea, hala faktura eman behar duenarena nola eragiketen hartzailearena; eragiketen edo gastuaren xedearen deskripzioa, balio erantsiaren gaineko zergaren oinarria zehazteko behar diren datu guztiak adieraziz.

1. Egindako jarduerak beste moduren batera egiaztatu ezin direnean baino ez dira onartuko hartze agiria. Nolanahi ere, hartze agiria sinatzen duen pertsonak ezin du izan enpresaria edo profesionala. Bestela, dagokion faktura igortzeko eta entregatzeko betebeharra izango luke.

Hartze agirian ondoko datu hauek agertu behar dira:

- Igorlearen eta hartzailearen izen-abizenak, IFZ eta helbidea.
- Egindako eragiketaren edo zerbitzuaren deskribapen zehatza eta haren guztizko prezioa.
- PFEZen atxikipena (dagokion Zerga Administrazioako Estatu Agentzian atxikipen hori ordaindu izana frogatzen duen agiria erantsi behar da).
- Lekua, data eta pertsona edo erakunde hartzailearen sinadura.

2. Langile gastuak justifikatzeko, nomina eta erakunde edo pertsona onuradunaren Gizarte Segurantzako TC2 agiria aurkeztuko da. Nominekin eta TC agiriarekin batera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, eta hor adieraziko da diruz lagundutako jarduerari egotzi zaizkiola gastu guztiak. Denbora eta egotzitako kopuruak ere zehaztuko dira. Hala badagokio, proiektua gauzatzeko bere konturako langilerik ez izatearen zinpeko deklarazioa aurkeztu beharko da.

3. Langile gastuak badaude edo profesionalen PFEZaren atxikipena duten fakturak aurkezten badituzte, 190 ereduaren kopia bidaliz egiaztatu beharko dute atxikipenak ordaindu dizkiotela Arabako Foru Aldundiari.

10.2. Dirulaguntza banku transferentzia bidez ordainduko da, pertsona edo erakunde hartzaileak bere eskabidean horretarako adierazi duen kontu korrontean.

10.3. Dirulaguntza ez da ordainduko pertsona edo erakunde hartzaileak frogatzeke baldin badauka udal honek emandako beste dirulaguntzaren bat, edo aurreko dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu bazaio eta ez badu hala egin. Dirulaguntza ezin izango da ordaindu erakunde onuradunak bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituen bitartean, edo itzulketa bidezko zat jotzen duen ebazpen baten ondorioz zorduna denean.

11. Dirulaguntza galtzea eta dirulaguntza itzuli beharra

11.1. Ondoren adierazten diren kasuetan, erakunde hartzaileek itzuli beharko dituzte jasotako kopuruak, Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorren 23. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37. artikuluan (38/2003 Legea, azaroaren 17koa) eta dirulaguntzen udal ordenantzan ezarritakoarekin bat etorritik:

a) Dirulaguntza eskuratu izana ezarritako baldintzak faltsutuz edo dirulaguntza ezin ematea eragin izango zuketena baldintzak ezkutatu.

b) Ez betetzea, osorik edo partez, dirulaguntza funtsatu zuen xedea, jarduera edo proiektua, edo ez jokatzeko dirulaguntza funtsatu zuen jokabidearen arabera.

c) Ez betetzea justifikatzeko betebeharra, edo ez justifikatzea behar beste, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 30. artikuluan ezarritakoaren arabera eta oinarri hauetan ezarritakoaren arabera.

d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 14. eta 15. artikuluetan jasota dauden egiaztatze eta finantza kontrolerako jardunei oztopoak eta aitzakiak jartzen baizaizkio, saihestu edo galarazi nahi badira edo agirien kontabilitate, erregistro edo irauarazte beharrak betetzen ez badira. Hau da, jasotako diru laguntzari emandako erabilera, helburua lortu den ala ez, diruz lagundutako ekintzen errealitatea edo erregulartasuna, edo helburu bererako estatuko, Europako edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batek emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak jaso diren ala ez egiaztatzerik ez badago.

e) Oinarri hauetan, dirulaguntzen udal ordenantzan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean, azaroaren 17koan, eta lege hori garatzen duen erregelamenduan (887/2006 ED, uztailaren 21ekoa) aurreikusitako gainerako kasuak.

11.2. Erakunde edo pertsona onuradunak, edo, hala balegokio, erakunde laguntzaileak erabat edo ia erabat betetzen badute helburua, eta erakunde horiek egiaztatzen badute nabariki jardun direla konpromisoak betetzen, proportzionaltasun printzipioaren aplikazioz determinatuko da itzuli beharreko zenbatekoa.

11.3. Halaber, dirulaguntzen udal ordenantza orokorraren 14. artikuluko i) apartatuan jasotzen den kasuan, eta bat etorritik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen 19. artikuluko 3. apartatuarekin, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainetik atera den soberakina itzuli beharko da, bai eta dagokion berandutze interesa ere.

11.4. Emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura Erriberabeitiko Udalaren dirulaguntza deialdiaren oinarrietan, dirulaguntzen udal ordenantzan, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean eta haren Erregelamenduan araututakoari lotuko zaio.

12. Erakunde onuradunaren betebeharrak

Dirulaguntza bat jasotzen duen erakunde baten eginbeharrak dira:

12.1. Udalari aurkeztea diruz lagundutako kontzeptuen jarraipena egiteko eskatzen diren agiriak.

12.2. Erriberabeitiko Udaleko kontu-hartzaitza orokorrak agiriak egiaztatzeko eta finantzak kontrolatzeko gauzatzen dituen jardunak igarotzea, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren edo eskumen hori duten beste organo batzuen gaineko legedian jasotakoak ere.

12.3. Gordeta edukitzea jasotako laguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak, agiri elektronikoak barne, egiaztatutako eta kontrolatuak izan daitezkeen neurrian.

12.4. Jasotako dirua itzultzea, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak ez badira betetzen.

12.5. Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean baldintzak eta betekizunak betetzen direla justifikatzea, baita dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin dela eta helburua bete dela ere.

12.6. Laguntza ematen duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.

13. Interpretazioa eta araudi aplikagarria

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sortzen den edozein zalantza Udaltzak ebatziko du.

Oinarri hauetan jasotzen ez den guztian, aplikagarriak izango dira Udalaren Dirulaguntzen Udal Ordenantza, Udaltzak 2016ko uztailaren 14an egindako bilkuran onetsia eta ALHAOn 2016ko azaroaren 7an argitaratua (124. zenbakia); Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta bere arautegia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia; eta gainerako araudi aplikagarria.

19/2013 Legeak (gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) II. kapituluaren 8. c) artikuluan, eta apirilaren 7ko 2/2016 Legeak (Euskadiko Toki Erakunde bidezko) II. kapituluaren 55. i) artikuluan xedatutakoaren arabera, udalak, bere webgunearen bidez (www.erriberabeitia.eus) eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez, argitaratuko ditu emandako dirulaguntzak eta laguntza publikoak, haien zenbatekoa, xedea edo helburua eta hartzaileak adieraziz (DBLOko irizpideei jarraituz).

14. Datu pertsonalen babesa

Bat etorri abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalak babestearenak, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, erakunde publikoen jabetzako datu pertsonalen fitxategien eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzearenak, xedatutakoarekin, deialdi hau izapidetzeko bildutako datu pertsonalak Erriberabeitiko Udalaren dagokion fitxategian jasoko dira, zeina Erriberabeitiko Udalaren datu pertsonalen fitxategiak sortzeko eta aldatzeko arauan sartuta baitago.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko, Erriberabeitiko Udalerari jo behar da.

Era berean, deialdi honetan lehiatzen diren pertsonak baimena ematen diote Erriberabeitiko Udalerari egiazta ditzaten aurkeztutako agirietan emandako datuak beste organismo publiko batzuetan.

Ribabellosa, 2019ko azaroaren 20a

Alkatea

MIREN JOSEBE SANTAMARÍA MARTÍNEZ

I. ERANSKINA

ERRIBERABEITIKO (ARABA) IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO KIROL KLUB
ETA ELKARTEEK 2019AN GAUZATUTAKO KIROL, KULTURA ETA GIZARTE
EKINTZA ARLOKO GASTUETARAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA

.....jaunak/andreak,NAN zenbakia
duenak,ELKARTEAREN LEHENDAKARIA den aldetik
(herria:, helbidea:,
posta kodea:, Araba).

Telefonoa, helbide elektronikoa

Elkartearen datuak:

BAZKIDE KOP.	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Gizonak		
Emakumeak		
GUZTIRA		

ADIERAZTEN DU

Erriberabeitiko (Araba) irabazteko xederik gabeko kirol klub eta elkarteek 2019an gauzatutako kirol, kultura eta gizarte ekintza arloko gastuetarako dirulaguntzen deialdia ikusita, eta bertan jasotako oinarrien berri izanik, honako hau

ESKATZEN DU

Gastuok finantzatzeko dirulaguntza eman diezaiotela eta, horretarako, deialdiaren oinarrien 5. puntuan aipatutako agiriak aurkezten ditu. Kostua, guztira, euro izango da (eskatzen den guztizko zenbatekoa), eta eskatutako agiriak ere aurkezten ditu, zeinak egiazkoak direla ziurtatzen baitut:

Aurkeztu dituen agiriak (jarri x marka)

- 1. Elkartearen estatutuen fotokopia, eta elkarten erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duten agiriak (soilik lehenengo aldiz eskatzen bada, edo 2019an aldaketak izan badira).
- 2. Elkarteko lehendakariaren NANaren fotokopia, eta elkarteko IFZ (azkena, aurreko urteetan aurkeztu ez bada soilik).
- 3. Zinpeko deklarazioa eta erakundeak helburu bererako jaso edo eskatu dituen beste-lako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideen zerrenda xehatua. Zenbatekoa eta jatorria adieraziko da (II. eranskina).
- 4. Jardueren memoria, justifikatzen duena dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla, eta honako hauek jasotzen dituen: egindako ekintzak, betetako helburuak, erabilitako baliabideak eta noiz gauzatu diren.
- 5. Diruz lagundu nahi den programaren memoria xehatua, honako hau duena: diruz lagundu daitekeen ekitaldiko gastuen eta sarreraren azken balantzea, jardueraka xehatuta.
- 6. Banketxeak emandako ziurtagiria, kontu zenbakia eta titularra jakinarazten dituen, elkartearen izenean, nola eta udalean aurrez jasota ez dagoen.
- 7. Diruz lagundu daitekeen ekitaldiko gastuen eta sarreraren zerrenda zenbakitua, jardueraka xehatuta (III. eranskina).
- 8. Gastuen justifikazioa, baldin eta ordainduta badaude, deialdi honen 10. oinarrian ezarritakoaren arabera.

....., 2019koarena

Izpta.:

(Elkartearen sinadura eta zigilua)

II. ERANSKINA

(Xede bererako bestelako diru sarrerarik lortu EZ bada soilik bete behar da atal hau)

.....jaunak/andreak,NAN zenbakia duenak,ELKARTEAREN LEHENDAKARIA den aldetik (herria:, helbidea:, posta kodea:, Araba).

Telefonoa, helbide elektronikoa

ADIERAZTEN DU

Ordezkatzen dudan erakundeak EZ duela eskatu eta EZ duela jaso inongo diru sarrerarik (erakunde publiko zein pribatuengandik) 2019an kirol, kultura eta gizarte ekintza arloetan egindako gastuak finantzatzeko.

(Xede bererako bestelako diru sarrerarik LORTU BADA soilik bete behar da atal hau)

.....jaunak/andreak,NAN zenbakia duenak,ELKARTEAREN LEHENDAKARIA den aldetik (herria:, helbidea:, posta kodea:, Araba).

Telefonoa, helbide elektronikoa

ADIERAZTEN DU

Ordezkatzen dudan erakundeak ESKATU DUELA eta JASO DUELA diru sarreraren bat (erakunde publiko zein pribatuengandik) 2019an kirol, kultura eta gizarte ekintza arloetan egindako gastuak finantzatzeko. Hona hemen sarrera horiek:

ERAKUNDEA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA

....., 2019koarena

Izpta.:

(Elkartearen sinadura eta zigilua)

III. ERANSKINA**DIRUZ LAGUNDU NAHI DIREN GASTUEN ZERRENDA ZENBAKITUA**

..... jaunak/and..... NAN zenbakia
 duenak, ELKARTEAREN LEHENDAKARIA den aldetik,
 dirulaguntza eskatzen du 2019an gauzatutako kirol, kultura eta gizarte ekintza arloko jardueren
 eta programen gastuetarako; eta zehazki, honako kontzeptuetarako:

Eta behar den tokian hala ager dadin sinatzen du.

....., 2019koarena

Izpta.:

(Erakundearen zigilua eta sinadura)

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA (BEZA BARNE)	ERANTSITAKO AGIRIAK: (PROIEKTUA, MEMORIA, ...)	FAKTURA			BESTE LAGUNTZA BATZUK ADIERAZI (BAI ALA EZ).	LAGUNTZEN ZENBATEKOA	ZENBATEKOA, BESTE LAGUNTZA BATZUK KENDUTA
			ZENBATEKOA	DATA	ORDAINKETA DATA			